**2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA** | **LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021**

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

HELBURUAK

1.- Dirulaguntzen deialdia pixkanaka (H)ABIAN 2030, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren euskal Estrategiara egokitzea, gizarte arloko sentsibilizazio proiektuak garatzeko.

2.- Lurraldean ezarritako erakundeekin hasitako partaidetza eta elkarrizketa prozesua dinamizatzea.

3.- Lankidetza tresna berria bultzatzea, berritzaile eta eraldatzailea dena, Arabako Lurralde Historikoan ezarrita dauden erakundeekin finkatuta eta adostuta dauden esparru estrategikoetan oinarrituz.

4.- COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak arintzen laguntzen duten ekintzak abian jartzen laguntzea, eskura ditugu tresnen bidez.

5.- Larrialdietarako Arabako Funtsa tresna egoki gisa indartzea, garatzeko bidean diren herrialdeetan eragiten duten larrialdi egoeretan laguntzeko, esku hartzeko gaitasuna egiaztatuta duten erakundeei laguntza ekonomiko arina emanez.

6.- Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) sustatzea, hobekuntza prozesu gisa.

7.- Toki erakundeekiko zuzeneko lankidetzako ekintza berriak identifikatzea.

8.- Aldundiak lankidetza eta/edo sentsibilizazio arloan lagundutako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

9.- Erakundeen arteko foroetan, truke eta koordinazio egituretan aktiboki parte hartzea.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

### I. MEMORIA

OBJETIVOS

1.- Adecuar de forma progresiva la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo de proyectos de sensibilización social a (H)ABIAN 2030, la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS).

2.- Dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las organizaciones implantadas en el territorio.

3.- Impulsar un nuevo instrumento de cooperación, novedoso y transformador, sobre la base de ámbitos estratégicos definidos y acordados con las entidades implantadas en el Territorio Histórico de Álava.

4.- Favorecer la puesta en marcha de acciones que contribuyan a paliar los efectos de la crisis generada por el COVID-19, a través de los instrumentos con los que contamos.

5.- Reforzar el Fondo Alavés de Emergencia como herramienta adecuada que permite brindar ayuda en situaciones de emergencia que afecten a países en desarrollo, mediante el ágil apoyo económico a entidades que cuenten con comprobada capacidad de intervención.

6.- Promover la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora.

7.- Identificar nuevas acciones de cooperación directa con entidades locales.

8.- Realizar seguimiento y evaluación de los proyectos apoyados por la Diputación de cooperación y/o sensibilización.

9.- Participar de forma activa en foros interinstitucionales, en estructuras de intercambio y coordinación

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

## 2021EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

Azkenean honako hauek izan dira 2021eko ekitaldian garatutako jarduketak:

**1.- Dirulaguntzen deialdia pixkanaka (H)ABIAN 2030, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren euskal Estrategiara egokitzea, gizarte arloko sentsibilizazio proiektuak garatzeko.**

Diputatu nagusiaren uztailaren 9ko 224/2021 Foru Dekretuaren bidez, norgehiagoka araubidean dauden irabazi asmorik gabeko elkarte eta erakundeei dirulaguntzak ematea onartu zen, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza proiektuak garatzeko. 2021eko ekitaldia.

Hamabost erakunde aurkeztu ziren, eta lau entitate emakidatik kanpo geratu ziren, bertan aurreikusitako xedapenak ez betetzeagatik.

Balorazioak egin ondoren, zegozkion hamaika dirulaguntzak onartu eta izapidetu ziren. Azkenean, 137.740,29 € erabili ziren deialdian (deialdian xedatutakoaren % 94,99).

**2.- Lurraldean ezarritako erakundeekin hasitako partaidetza eta elkarrizketa prozesua dinamizatzea.**

GGKEen Koordinakundearen Arabako ordezkaritzarekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, foru aldundiko lankidetza arloko deialdiekin zerikusia duten gaiei buruzko informazio saio bat egin zen, eta interesa zuten GGKE guztiei parte hartzeko gonbita egin zitzaien.

Besteak beste, epeak, aldaketak eta justifikazioak, aurrekontuei, genero irizpideei, erregistro elektronikoari edo zuzenketei buruzko gai teknikoak jorratu zituen bilkuraren edukiak. 18 erakundek parte hartu zuten.

**3.- Lankidetza tresna berria bultzatzea, berritzaile eta eraldatzailea dena, Arabako Lurralde Historikoan ezarrita dauden erakundeekin finkatuta eta adostuta dauden esparru estrategikoetan oinarrituz.**

Eskutikmundura prozesuan zehar, gogoeta eta lan

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

Las actuaciones finalmente desarrolladas durante el ejercicio 2021 han sido las siguientes:

**1.- Adecuar de forma progresiva la Convocatoria de subvenciones para el desarrollo de proyectos de sensibilización social a (H)ABIAN 2030, la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS).**

Mediante Decreto Foral, del Diputado General, 224/2021, de 9 de julio, se aprobó la concesión de subvenciones dirigidas a asociaciones y entidades sin ánimo de lucro en régimen de concurrencia competitiva, para el desarrollo de proyectos de Educación para la Transformación Social. Ejercicio 2021.

A la misma se presentaron 15 entidades, quedando cuatro entidades fuera de la concesión por incumplimiento de diferentes disposiciones previstas en la misma.

Realizadas las valoraciones, fueron aprobadas y tramitadas las once subvenciones correspondientes, resultando una cantidad final aplicada en la Convocatoria de 137.740,29 € (94,99% de lo dispuesto en la Convocatoria).

**2.- Dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las organizaciones implantadas en el territorio**.

En el marco del convenio con la delegación de Alava de la Coordinadora de ONGD, se realizó una sesión informativa sobre cuestiones que tienen que ver con las convocatorias del área de cooperación de la diputación en la que se invitó a participar a todas las ONGD interesadas.

El contenido de la sesión abordó temas que tienen que ver con plazos, modificaciones y justificaciones, cuestiones técnicas sobre presupuestos, criterios de género, registro electrónico o subsanaciones entre otras. La participación fue de 18 entidades.

**3.- Impulsar un nuevo instrumento de cooperación, novedoso y transformador, sobre la base de ámbitos estratégicos definidos y acordados con las entidades implantadas en el Territorio Histórico de Álava**.

A lo largo del proceso Eskutikmundura se mantiene

prozesu irekiari eutsi zaio, Aldundiak dituen tresnei buruz eta horiek munduko eztabaida eta testuinguru berrietara egokitzeko beharrari buruz.

Horrek agerian utzi du lankidetza tradizionala gainditzea ahalbidetuko duten tresna berriak sortzeko beharra, ikuspegi globalarekin txertatu beharko liratekeen alderdiak identifikatuz, sektore eta geografia estrategiak gaindituz, bai eta garapen lankidetzaren eremuko profil tradizionalez bestelako eragile berriak sartzearen garrantzia ere.

Lan partekatu horren ondorioz, Transformadore Tresna Berriari buruzko dokumentu adostua egin zen, eta lan saio batean aurkeztu eta onartu zen. Dokumentu honen oinarrian dauden ezaugarriak eta tresna berri bati egokitutako esperientzia izan behar duen metodologia jasotzen dira. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Planaren eremu estrategikoetako bat lehenesten da, zehazki, “*Ekonomia eta kontsumo arduratsuko eredua”*. Bilera horretan, dokumentuaren berezitasunetara egokitutako esperientzia praktikan jartzeko eman beharreko pausoak adostu ziren.

Ondoren, lankidetzaren eremutik kanpoko erakundeekin identifikazio eta harreman fase bat hasi zen, hainbat topaketa eta bileren bidez, proiektuaren berri emateko eta esperientzia horretan parte hartzera gonbidatzeko. Hala, interesa zuten partaidetza eremuko erakundeekin eta identifikatutako eragile berriekin, tresna berriaren definizioarekin bat etorriko zen esperientzia pilotu bat definitzeko lanean hasi ziren.

4 bilera egin dira gizarte eragileekin, eta 5 lan tailer egin dira.

Garrantzitsua da aipatzea hilabete hauek prozesu dinamikoa ekarri dutela, erakunde parte hartzaileen parte hartze handiarekin, eta prozesuaren beharretara egokitu dela planteatutako helburuak lortzeko.

Lan partekatu horren ondorioz, abenduan esperientzia pilotu baten proposamena aurkeztu zen, 2022an garatu beharreko tresna eraldatzaile berriaren baldintzetara egokitua.

un proceso abierto de reflexión y trabajo acerca de los instrumentos con que cuenta la diputación y la necesidad de adecuarlos a los nuevos debates y contextos mundiales.

Ello ha evidenciado la necesidad de crear nuevos instrumentos que permitan trascender la cooperación tradicional, identificando aspectos que deberían de incorporarse con una visión global, superando las estrategias sectoriales y geográficas, así como, la importancia de incorporar a nuevos agentes, con perfiles diferentes a los tradicionales del ámbito de la cooperación al desarrollo.

Fruto de este trabajo compartido se elaboró el documento consensuado sobre el Nuevo Instrumento Trasformador, el cual fue presentado y aprobado en una sesión de trabajo. Este documento incluye las características sobre las que se fundamenta, y la metodología que debe de contener una experiencia adecuada a un nuevo instrumento. Además, se prioriza uno de los ámbitos estratégicos del Plan de Gobierno Vasco, concretamente el “*Modelo económico y de consumo responsable*”. En la sesión citada se acordaron los pasos a dar con el fin de poner en práctica una experiencia adecuada a las particularidades del documento.

Posteriormente, se inició una fase de identificación y contacto con entidades fuera del ámbito de la cooperación a través de diferentes encuentros y reuniones, con el fin de darles a conocer el proyecto e invitarles a participar en esta experiencia. Así, con las entidades del espacio participativo interesadas, y con los nuevos agentes identificados, se comenzó a trabajar para definir una experiencia piloto acorde con la definición del nuevo instrumento.

Se han realizado 4 reuniones con agentes sociales y se han realizado 5 talleres de trabajo.

Es importante señalar que estos meses han supuesto un proceso dinámico, con una alta participación de las entidades participantes, y que se ha adaptado a las necesidades del proceso para el logro de los objetivos planteados.

Producto de este trabajo compartido, en el mes de diciembre se presentó la propuesta de una experiencia piloto adecuada a las condiciones del nuevo instrumento trasformador a desarrollar a lo

largo del año 2022.

Esperientziak "*lurraldeak eraldatzen agroekologiatik"* titulua du. Horren helburua da lurraldea eraldatzen laguntzea, agroekologiaren eskutik (ekoizpena eta kontsumoa), eraikuntza kolektiboko gune estrategikoen, eragileen ezagutzaren, baliabideen eta beharren bidez, eta ikaskuntza komunitateak sortuz, non gogoeta egin, partekatu, ezagutzak, metodologiak, teknikak, tresnak eta ikaskuntzak trukatu ahal izango diren.

La experiencia tiene el título de "*Transformando territorios desde la agroecología*". El objetivo de esta es contribuir a transformar el territorio de la mano de la agroecología (producción y consumo) a través de espacios estratégicos de construcción colectiva, del conocimiento de agentes, recursos y necesidades y de la creación de comunidades de aprendizaje donde reflexionar, compartir, intercambiar conocimientos, metodologías, técnicas, herramientas y aprendizajes.

**4.- COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak arintzen laguntzen duten ekintzak abian jartzen laguntzea, eskura ditugu tresnen bidez.**

Arabako Foru Aldundiak bere konpromisoari eutsi dio hainbat deialdiren bidez: urte anitzeko eta urteko garapenerako lankidetza proiektuak, eta Larrialdietarako Arabako Funtsa.

**4.- Favorecer la puesta en marcha de acciones que contribuyan a paliar los efectos de la crisis generada por el COVID-19, a través de los instrumentos con los que contamos**.

La Diputación Foral de Álava ha mantenido su compromiso a través de las diferentes convocatorias: proyectos de cooperación al desarrollo de carácter plurianual y anual, y el Fondo Alavés de Emergencias.

**5.- Larrialdietarako Arabako Funtsa tresna egoki gisa indartzea, garatzeko bidean diren herrialdeetan eragiten duten larrialdi egoeretan laguntzeko, esku hartzeko gaitasuna egiaztatuta duten erakundeei laguntza ekonomiko arina emanez.**

2021ean zehar, 6 esku hartze humanitario lagundu dira krisi humanitario larriak jasan dituzten beste hainbeste herrialdetan, 179.686,03 euroko guztizko gastuarekin.

Nabarmentzekoa da FAE arautzen duen hitzarmenean genero irizpide espezifikoak sartu direla, finantzatutako proiektuetan emakumeen eta nesken egoera, baldintza, behar eta lehentasun desberdinak kontuan hartzeko.

**5.- Reforzar el Fondo Alavés de Emergencia como herramienta adecuada que permite brindar ayuda en situaciones de emergencia que afecten a países en desarrollo, mediante el ágil apoyo económico a entidades que cuenten con comprobada capacidad de intervención**.

A lo largo de 2021, se han apoyado 6 intervenciones humanitarias en otros tantos países afectados por graves crisis humanitarias, con un gasto total de 179.686,03 euros.

Cabe destacar la incorporación en el Convenio que regula el FAE de criterios específicos de género para considerar las diferentes situaciones, condiciones, necesidades y prioridades de mujeres y niñas en los proyectos financiados.

**6.- Garapenerako Politiken Koherentzia (GPK) sustatzea, hobekuntza prozesu gisa.**

2021ean, eta Laiaren elkartasun ildoaren barruan, SETEM Hegohaizea elkarteak honako ekimen hauek garatu ditu Aiaran, Lankidetza Arloak lagunduta:

- Tokiko erresistentzien tailerra, bizitza Elkarrizketa zentroan jartzen dutenak.

**6.- Promover la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora**.

En el año 2021, y dentro de la línea de solidaridad de Laia, SETEM Hegohaizea ha desarrollado en Ayala las siguientes iniciativas apoyadas desde el área de Cooperación:

- Taller de Resistencias locales que ponen la vida en el centro Diálogo.

- Ipar-hegoaldeko emakumeen tailerra lurraren defentsaren alde.
- Elikadura baino gehiago Dokuforuma: agroekologia eta ekofeminismoa.

**7.- Toki erakundeekiko zuzeneko lankidetzako ekintza berriak identifikatzea.**

Aldundiak garapenerako lankidetza proiektu bat ezarri zuen Afrikan 2021ean, Manuel Iradier Arabako Elkarte Afrikanistaren bitartez.

Proiektuaren helburua Gineako Errepublikako Brouwal udalerrian garapen iraunkorra lortzen laguntzea da, emakumearen egoera sozial, ekonomiko eta politikoa hobetuz.

**8.- Aldundiak lankidetza eta/edo sentsibilizazio arloan lagundutako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.**

Irabazteko xederik gabeko erakundeen bidez garapen bidean dauden herrialdeetan garapenerako lankidetza proiektuak, urte anitzekoak, finantzatzeko deialdia onesten duen deialdian jasotzen denez, diruz lagundutako erakundeak, egokitzen den urterokoa jaso eta sei hilabete igaro ondoren, bilera bat egin beharko du Berdintasun, Lankidetza eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, haren jarraipena egiteko. Ildo horretan, proiektuaren hirugarren eta azken urtea gauzatu duten bederatzi erakundeekin dagokion jarraipena egin da.

Irabazteko xederik gabeko erakundeei laguntzak ematen zaizkie, genero ikuspegia aintzat hartuta Eraldaketarako Hezkuntzako Proiektuen ekintzak gauzatzeko. Bada, laguntza horien deialdiaren barruan, jarraipenerako bilerak egiten dira erakunde onuradunekin, proiektuak gauzatu ahala, eta garatzen diren jardueren arabera.

Lankidetza proiektu puntualen deialdiaren esparruan, tarteko eta amaierako txostenak aurkezteaz gain, jarraipen bilerak egiten dira inplikatutako erakunde guztiekin.



- Taller de Mujeres del norte-sur por la defensa de la tierra.
- Docuforum Más que alimentación: agroecología y ecofeminismo.

**7.- Identificar nuevas acciones de cooperación directa con entidades locales**.

La Diputación implementa un proyecto de cooperación al desarrollo en África en el año 2021, a través de la asociación alavesa Africanista Manuel Iradier.

El objetivo del proyecto es contribuir a un desarrollo sostenible en el Municipio Rural de Brouwal, República de Guinea, por medio de una mejora de la posición social, económica y política de la mujer.

**8.- Realizar seguimiento y evaluación de los proyectos apoyados por la Diputación de cooperación y/o sensibilización**.

Como se recoge en la convocatoria que aprueba la convocatoria para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo de carácter plurianual a través de entidades sin ánimo de lucro, la entidad subvencionada, transcurridos seis meses del ingreso de la anualidad correspondiente, deberá mantener una reunión con el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad con el fin de efectuar el seguimiento de este. En este sentido, se ha realizado el seguimiento correspondiente con las nueve entidades que han ejecutado su tercer y último año del proyecto.

En el marco de la convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de EpTS con perspectiva de género, además de los informes correspondientes, se mantienen reuniones de seguimiento con las entidades beneficiarias a medida que los proyectos se ejecutan y en función de las actividades que se implementan.

En el marco de la convocatoria de proyectos puntuales de cooperación, además de la presentación de los informes intermedios y finales, se realizan reuniones de seguimiento con todas las entidades implicadas.

Larrialdietarako Arabako Funtsaren (LAF) esparruan gauzatzen diren proiektuen kasuan, hitzarmen arautzailean bertan aurreikusita dagoen batzorde teknikoak berrikusten ditu aurkezten diren txostenak. Batzorde horretako kideak Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko teknikariak dira.

Zuzeneko lankidetzako esku hartzeei dagokienez, proiektuetan ezarritako orientabide eta ekintzen jarraipena, balorazioa eta birformulazioa egiteko bilerak egin dira, baita erakundeek aurkeztutako txostenen jarraipena ere.

**9.- Erakundeen arteko foroetan, truke eta koordinazio egituretan aktiboki parte hartzea.**

- Erakunde arteko koordinazioa.

eLankidetzaren erakunde arteko batzordean parte hartzen jarraitzen da. Hauek dira 2021ean espazio honetan landutako gai nagusiak:

Lankidetzaren Euskal Legearen aurreproiektua.

Lankidetzaren euskal lege berriaren aurreproiektua prestatzen lan egin da. Erakunde arteko Batzordearen bileretan GGKEen Koordinakundearekin eta lankidetzako beste eragile batzuekin, askotariko adituekin eta abarrekin lan handia egin ondoren, eLankidetzak testuaren zirriborro oso aurreratua du.

Erakunde arteko ekimenak, AKUAL izenekoa.

Erakundeek 2021eko irailetik 2024ko martxora bitartean Uraren eta Saneamenduaren arloko Lankidetzarako Erakunde arteko Programaren bigarren fasea aurrera eramateko konpromisoa berretsi dute, baita programaren kudeaketa Euskal Fondoaren esku uzteko konpromisoa ere.

- Euskal Lankidetza Publikoaren ataria

Euskal Lankidetza Publikoaren Ataria mantentzearekin eta hobetzearekin zerikusia duen lanarekin jarraitzea. Plataforma horrek euskal

En el caso de los proyectos ejecutados en el marco del Fondo Alavés de Emergencias (FAE), los informes presentados son revisados por la Comisión Técnica prevista en el propio Convenio regulador y que abarca tanto al personal técnico de la Diputación Foral de Álava como del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

En relación con las intervenciones de cooperación directa, se mantienen reuniones de seguimiento, valoración y reformulación de las orientaciones y acciones implementadas en los diversos proyectos, así como el seguimiento a través de los informes presentados por las entidades.

**9.- Participar de forma activa en foros interinstitucionales, en estructuras de intercambio y coordinación**.

- Coordinación interinstitucional.

Se continúa participando en la comisión interinstitucional de eLankidetza. Estos son los principales temas trabajados en este espacio a lo largo de 2021:

Anteproyecto de la ley vasca de cooperación.

Se ha trabajado en la elaboración del anteproyecto de la nueva ley vasca de cooperación. Tras el intenso trabajo realizado en las sesiones de la Comisión Interinstitucional, con la Coordinadora de ONGD y otros agentes de cooperación, personas expertas diversas, etc., eLankidetza cuenta ya con un borrador muy avanzado de texto.

Iniciativas interinstitucionales, denominada AKUAL.

Las instituciones han ratificado el compromiso de llevar adelante la segunda fase del Programa Interinstitucional de Cooperación en Materia de Agua y Saneamiento Euskadi Centroamérica entre septiembre de 2021 y marzo de 2024. Así como la delegación de la gestión del programa en Euskal Fondoa.

- Portal de la Cooperación Pública Vasca

Continuación del trabajo que tiene que ver con el mantenimiento y la mejora del Portal de la Cooperación Pública Vasca, plataforma que recoge

erakunde publikoen garapenerako lankidetzako jarduerak jasotzen ditu.

- Euskal Fondoa Lankidetzako Euskal Erakundeen Elkartearen Batzordean parte hartze aktiboa izatea. Arabako Foru Aldundia elkarte horren parte da eta haren kudeaketa eta koordinazio organoetan parte hartzen du.

las actuaciones de Cooperación para el Desarrollo de las entidades públicas vascas.

- Participación activa en la Junta de Euskal Fondoa, la Asociación de Entidades Vascas Cooperantes, de la que la Diputación Foral de Álava es parte y participa en sus órganos de gestión y coordinación.